

JON CAZENAVE_GALERNA: AZTERGAIA

Tailer honek gure biografiari estu lotutako subjektu fotografiko gisa planteatzen du paisaia: inguratzen gaituen mundua irudiekin kartografiatuko dugu, gure testuingurua ulertzeko eta, hala, gure izatea definitzeko. Lurralde bat argazkitan jasotzeko ekintzaren bitartez, gure identitatearen mapa bat eraikitzeko izango den bideari ekingo diogu, eta horrela egituratuko dugu imaginario bisual propio bat, guri dagokiguna eta esanguratsu zaiguna.

Premisa horretatik abiatuta, espazio bateratu bat sortzea da tailer honen asmoa, irudien bitartez hausnarketa bat egiteko hainbat alderdiren inguruan, besteren artean: memoria indibiduala eta kolektiboa, paisaiaren osagai fisikoa eta espirituala, ekintzaren isiltasuna edo garrantzia prozesu fotografikoan, kontzientzi hartzeko etengabeko ariketa gisa hartuta.